

B

BARREN

Petrolioaren diktadura...

... poltsikoen tristura





IKASI
INGELES
DIBERTITUZ
benetan!!



IKASFUN!!!
UDAKO PROGRAMA

IKASI
INGELES
DIBERTITUZ

benetan!!

- ♦ Ingelesa ikasteko modurik dibertigarriena.
- ♦ Programa trinkoa.
- ♦ Dinamikoa eta praktikoa.
- ♦ Ingelesez komunikatzen ikasiko duzu.
- ♦ Talde eta lan-metodo ugari.
- ♦ Adin taldeak: 6-8, 9-11, 12-14 urte.

Borroto pasealekua, 18 AIETE
20009 DONOSTIA
Tel: 943 31 33 77
E-posta: donosti@kensington-sl.es

San Inazio kalea, 4
20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 02 36 - Faxa: 943 74 35 12
E-posta: elgoibar@kensington-sl.es

Udako ikastaroak

07-08 ikastaroa

matrikula zabalik

IRAILKO AZTERKETAK PRESTATZEKO IKASTARO BEREZIAK

16 urtetik gorakoentzat

1.MAILA - 1.PERFLA
2.MAILA - 2.PERFLA
3.MAILA - EGA

TITULU OFIZIALAK

Uztaila - Iraila

Ekainaren 27tik uztailaren 24ra, 3 ordu
Irailaren 8tik 20ra, 2 ordu

PREZIOA: 110 euro.
Ikask eta langabetuentzako prezioa: 67,50 euro.

Bekatz sistema.

MATRIKULALDIA:
EKAINAREN 21tik 25era.

Egizu euskaraz!

nahi baduzu...
egingu duzu

UDAL
EUSKALTEGIAK



www.udaleuskaltegiak.net

Melinao Errepublikan 2
20870 **ELGOIBAR**
Tel./faxa: 943 74 27 31
E-posta:
elgoibar@udal.gipuzkoa.net

Musika entzuteko dela?

Sasoi batean hainbat lekutan joko genuen *You Keep Me Hanging On* abestiak ematen dit bidea jatorri afrikarreko musikak hainbat gizakiri entzute hutsaz gain sortzen diguna aurkezteko (www.youtube.com, Vanilla Fudge-ren bertsioa).

Mutikotan kostata entzuten genituen rhythm'n blues eta rock abesti haiek gozaten jarri eta musika taldeak sortzeraino eraman gintuzten (Expresión Sonora, Koska), haien erritmoak dantzara edota musika jotzera bul-tzaten zuen eta.

Halere, 1995ean Habanako La Tropical-en jasan nuen berebiziko astinaldi musikala: hemengo lagun batek Los Van Van taldea eskenatokitik "ikusteko" gonbidapena egin zidan. Ekitaldia aurrera zihoan neurrian, ezin nintzen geldirik egon. Perkusio anitzez etengabe errepikatzen ziren patroir eritmiko hipnotikoek ni ere irentsi ninduten, inguruan hankaz, sorbaldez eta gerriaz dantzan ari zen giza marea handi harekin batera. Gero, sei bat urtez arituko nintzen musika afroamerikarra ikasten nire kasa.

Gaur egun, gero eta esker onekoagoa naiz Afrikak musikari egindako ekarpenari buruz. Izan ere, musikak sentimenduak sortu eta azpimarratu egiten ditu, baina afrikar jatorrikoan aurkitu dut nik gorputza erritmoaz le-

rrokatu eta patroir errepikatuen bidez pentsamenduak gelditu eta burmuinaren beste funtzio indartsu batzuetarako sarbidea izateko, dela dantzan, dela instrumentu baten bidez, giro berean daudenekin komunikatuz. Ez da hain erraza, ordea, halako musika jotzeko lagunak hurbil topatzea. Zorionez, bada urtebete jazz kitarrista bat, perkusio jole bat eta piano jole bat elkartzen garela Eibarren. Nire aldetik, giro horrek animatuta, iazko uztailean kontrabaxu bat eskuratu eta taldeari soinu sendoagoa ematen diot. Horrela, Expresioneko aste-eroko entsegu atseginaz gain, beste bizipen gustuko bat izaten dut astero ere Eibarren.

Alfonso Guillo



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituzte gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

.....

"Musikak sentimenduak sortu eta azpimarratu egiten ditu"

elgoibarren.
iragarkilaburrak.com
zure-iragarkia elgoibartik eskal herrira

iragarkilaburrak.com
musikaTaldeko iragarki laburrak

www.elgoiBARREN.net

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR BURELAK

KORO ALDAZ

Gipuzkoako ALCER elkarteko
lehendakaria

**“Pertsona
bakar batek
askoren bizia
aldatu
dezake”**

Indarra eta kemena erakutsi zuen gaixotasunari aurre egiteko Koro Aldazek. Orain dela hamabost urte, ezezagun baten giltzurruna jaso zuen, eta horri esker bizi da, energiaz gainezka. Gaur egun bizitza normala egiten du. Hala ere, Gipuzkoako ALCER giltzurrunetako gaixoen elkarteari lotuta segitzen du, bera da-eta lehendakaria. Elkarteak 30 urteko ibilbidea ospatuko du aurten, giltzurrunetako 1.700 pazienteri zerbitzua emateko ahaleginean. Korok gizartea sentsibilizatzea garrantzitsua dela uste du. Organu-emaile gehien Espainian izan ziren iaz, eta emaitza altuenak EAEn izan ziren. Gipuzkoan 60.000 organu emaile egon arren, erlaxatzea ez dela komeni uste du. Behar eta erronka berriei erantzun behar zaie.

Noiz hasi zinen giltzurrunetako arazoekin?

Arazoak txikitari hasi ziren eta haurdunaldian areagotu egin ziren. 30 urte baino gehiagorekin larriagotu egin zitzaizkidan, eta nik ez nekien zer zen ere. Botagura neukan eta gorputza aldrebes. Giltzurrunen gaixotasunaz banekeen zerbait, gainera beti egin behar zidaten errebisioen bat txikitatik. Tratamendu batzuk egin nituen. 22 urte daramatzat giltzurrun gaixotasunarekin. Dialisian sei urte eman nituen. Urte asko dira.

Zer sentitu zenuen gaixo zeundela jakitean?

Bizitzeko modua aldatuko dela esaten dizute, eta hori ez duzu entzun ere egin nahi. Une horretan oso negatibo zaude. Loteria da, eta edonori tokatu ahal zaio. Izaera aldatu zitzaizkidan. Nire umore txarrak ingurukoengan eragiten zuen. Giltzurrunetako gaitzak ez dio bakarrik gaixoari eragiten, bere inguru guztiari baino. Azkenean, daukazunaz jakiteko gogo izaten duzu: elkartean sartu nintzen, eta hitzegin nezakeen nire gauzen gainean, bestela ingurukoak aspertuko nituzke.

“Emaile izan nahi duenak argi laga dezala bere inguruan. Azkenean familiak erabakitzen du”

Nolako bizimodua zenuen?

Sei urtean dialisian egon nintzen eta anemia handia neukan. Hilero edo odol poltsa jartzen zidaten. Sarri joaten nintzen Donostiara, dialisira. Oso nekatuta etortzen nintzen, eta alaba ezin nuen nahi beste zaindu. Jateko mugatuta nengoen, eta sozialki ere. Bizitza normala egiten saiatzen nintzen. Opor kontuan ere, mugatuta: han makinak egon behar du. **Giltzurruna jaso zenuen. Sentsazio berezia...** Donantea eta haren familia dauzkatz gogoan. Bizi osoa aurretik zuen norbait izango zen eta hiltzean familiari ez zitzaion erraza egingo.

Hala ere, elkartean buru-belarri diharduzu...

Irabazi asmorik gabeko elkarrekin gara, gero eta handiagoa. Atentzio sanitarioa duzun heinean, normalizazio soziala nahi duzu. Azken batean, gaixoen perfila aldatu egin da. Gero eta jende nagusi gehiago dago eta behar be-

riak sortzen dira: psikologoa badugu, baina gizarte laguntzailea ere behar dugu oporretako plazak tramitzatzeko. Pertsona bat oporretan badoa, beste zentru mediku batekin hitz egin behar dugu, tratamendu egokia izateko. Horrez gain, gure lokala txiki gelditu da: hiru langile dauzkagu lanean egun osoz eta dietista bat. Foru Aldundiarekin hitzarmena dugu eta elkarteko kideen kuotak jasotzen ditugu. Eskerrak loteria asko saltzen dugun. Elkartearen beharrak aztertu eta erantzuna eman behar diegu.

Gaur egun donazio maila handia da, ezta?

Familia pare batek donatzeari ezetz esan diote aurretik. Pertsona bakar batek askoren bizitza aldatu lezake: bi giltzurrun, bihotza, birrikak, erretina, hezurak, gibela... Zazpi-zortzi lagunen bizitza aldatu daiteke. Auto istripuek behera egin dutenez, gazte gutxiagok eman dezakete organua. Hartu dezaketena, berriz, gero eta nagusiagoak dira. Azken batean, ospitalean hildakoen %1ek baino ez ditu donaziorako baldintza egokiak betetzen.

Familiak du azken hitza hortaz.

Emaile-txartela atera dezakezu, baina familiak erabakitzen du. Horregatik esaten dugu garrantzitsua dela emaile izan nahi duenak esan dezala bere inguruan, argi laga dezala.

Gaur egun, giltzurrunetako gaixo batek zenbat denbora behar du organua jasotzeko?

Bi urte inguru. Badira denbora gehiago behar izaten duten gazteak. Giltzurruna hondatuta baduzu eta dialisira jo behar izan baduzu, hobeto da zure errealitateari egokitzea: medikuak ikusiko du zer den egokiena. Kasu bakoitza oso ezberdina da. Nik sei urte itxaron behar izan nuen eta zorte handia izan dut. Beharbada beste norbaitek gutxiago itxaron zuen baina konplikazioak izan ditu gero...

Zer esango zenioke jendeari?

Oro har, jendea mentalizatuta dago hemen. Donazioa familiarentzat lasaitua izan daiteke: ahal den onena egin ahal izatea. Eskuzabaltasun ekintza da donazioa. Minaren gainetik normalean jendeak baietz esaten du.

Odol emaleekin kanpaina egiten ari zarete...

Odol emaleek beherakada izan dute eta kanpaina martxan jarri dugu. Guk, hala ere, geure kanpainari ekingo diogu hilaren 16an. Gazteoi begira dago kanpaina, erlaxatuago bizi direlako, eta premia badagoela esan nahi dugu. Mentalizatzeke lana garrantzitsua da.

Oier Narbaiza

Beste organu-emaile batzuen esanetan...



ANE ETXEBERRIA
(Kororen alaba)

“Nik oso gertutik bizi izan dut giltzurrunen arazoa izan duen pertsonaren kasua: nire amarena. Dialisira joaten zen eta gaizki etortzen zen. Azkenean ikusten duzu zelari sufritzen duen. Gainera ama oso gogorra da. Beste batek ez luke berdin erreakzionatuko. Organuarekin zelako aldaketa izan duen ikusten dut. Beste bati bizi kalitatea hobetzea badago edo bizitza salbatzea, orduan aurrera. Organu horiek ez ditut behar”.



IDOIA AZPILIKUETA
(Odol emalea)

“Ni odol emalea naiz hamazortzi urte neuzkanetik. Garbi neukan. Nire etxean nire ahizpa bakarrik zen emalea orduan. Gero egin nintzen. Garbi neukan nahiz eta karneta ez eduki, organuak ere emango nituela eta etxean esanda neukan. Gero bizi izan genuen osabaren gibela transplantatu orain dela hamar urte eta karneta egin nuen. Azken hitza familiak dauka baina nik esanda daukat. Kontzientzia gehiago hartzen duzu gertutik bizi izan duenean”.



DEPOSITOAK BETETA BADAEZPADA ERE

Garraiolarien patronalak eta Madrilgo Gobernuak grebari irtenbide bat bilatzen ari ziren BARRENEko edizioa itxi aurretik. Auto-erabiltzaile askok sufritu dute gasolioaren garestitzea, baina kamioilarien egoera larriagoa da. Herri-tar askok, greba luzerako delakoan, gasolindegietara eta dendetara jo dute erregai eta janari bila.

Andoni Iturbe

Kamioilarien grebak zeharka gizarzte osoari eragin dio. Astelehenetik igarri zituzten bai dendek eta gasolindegiek lan-uztearen ondorioak. Luzerako izango zelakotan, astelehen goizetik gasolindegietan auto-ilarak zeuden, eta dendetan produktuak gutxitzen hasi ziren. Kamioilariak gizartean egiten duten lana agerian geratu da azken egunotan. Gasolioaren garestitzeak eragin du greba kamioilarien artean, eta herrikoek ere atseden hartu eta mantentze-lanak egiteko aprobetxatu dute. Bi kamioilarien testigantzak bildu ditu BARRENEk: batak hamabi urte daramatza kamioiarekin, eta besteak, 23.

Lorpenak

“Greba asko gogoratzen ditut, eta ez dugu inoiz eskatutako guztia lortzen”, adierazi du hamabi urte kamioiarekin dabilen herritar

batek. “Ordu murrizketa eskatu zutenean ere, ez zen harrizketa gure artean kezka sortzea. Atsedenerako ordu gehiegi dugu, eta gutxi lanerako. Ezin dugu gure lana behar bezala bete eta kamioia goiz kargatu edo deskargatu”, dio. Gasolinaren inguruan ere zuhur mintzatzen dira. Badakite gasolioaren garestitzeak kalte handiak sortzen dituela, autonomoen artean, bereziki. “Autonomoek

**Izoztutako produktuak
inoiz baino gehiago
saldu dira herrian;
arrain fresko
gutxiago saldu da**

ezin dute igoera hori faktura batean justifikatu”, azaldu dute.

Egoera oso larria da, eta gogoratzen dute autonomo asko gasolioa kamioira botatzeko ari direla lanean. Eurek kontratua dute enpresarekin, eta ez daukate gasolioa ordaindu beharrik. “Autonomoen kezka ulertzen dugu. Dena den, sektore guztiari eragiten dio. Agoantzen joan gara, eta honek eztanda egin du”, argudiatu dute.

Kamioilari guztiak, gainontzeko langileek bezala, erosmen-ahalmena eta bizitza-kalitatea hobetu nahi dute, baina egoera okerre doa. “Nire bizitza kalitateak okerrera egin du. Honetan hasi nintzenean hotelean egiten nuen lo, inolako presiorik gabe. Gaur egun, kargatzeko egun bat galtzeak kalte handiak sortuko litzuzke, eta bizkor joaten gara, estres handiagoarekin”, azaldu digu 23 urteko eskarmentua duen kamioilariak. Ez du izenik eman nahi, baina enpresa txiki batentzako



Juan Alonso

Hermanos Alonso garraio enpresako burua

“Garraioaren sektorea okerrera doa”

Juan Alonsoren aitak sortu zuen orain dela 26 urte Hermanos Alonso enpresa. Harrezkerotik, sasoi hobeak eta apalgoak bizi izan ditu gaur egun bederatik langile dituen enpresak. Greba hasi aurretik ere bere ikuspegia ezkorra zen, garraio sektorea okerrera doala uste baitu. Elkarrizketa astelehenean egin zen, grebaren hasieran.

Greba zen irtenbide bakarra gasoloren prezioari irtenbidea emateko?

Greba, nahi genuen azken irtenbidea da. Nekazariak eta arrantzaleak kexatzen lehengoak dira, baina eurak gasolio bonifikatuta dute, eta guk ez. Kamioilarien sektorea oso berezituta dago, hainbat interes daudelako. Autonomoak eta kontratadunak, zergei dagokionez, egoera desberdinean daude. Gainera hainbat elkarte daude, eta batek greba deialdia egiten bazuen, besteak

paso egiten zuen. Oraingoan, berriz, gutxiak ados jarri dira.

Luzerako joango da greba?

Baietz uste du.

Zenbat denbora irauten lezake?

Bi aste inguru.

Hainbeste?

Bai. Jendea erreta dago, gutxiago fakturatzeko ari gara eta gutxiago irabazten. Eta gastu gehiago ditugu. Gasolina %30 igo da, gure kostu nagusia. Eta egoera kezkatzeko modukoa da.

Autonomoen artean bereziki...

Bai. Gero eta autonomo gehiago daude enpresek ez dutelako arduratu eta inplikatu nahi.

Hortaz, laguntzak autonomoei eman behar zaizkie bereziki?

Autonomo batek gutxi fakturatzeko badu

gutxi kobratuko du, baina kostuak ere baxuak izango dira. Enpresa batek gutxi irabazi eta asko gastatzen badu, langilei berdin ordaindu beharko die. Gurea enpresa txikia da, eta hilaren bukaeran gure langileei beti bezala ordaindu behar diegu. Orain dela gutxi garraio enpresa bateko buru batek hileko, kamioi bakoitzeko, 600 euro galtzen ari zirela zioen. 21 kamioi ditu. Ezingo nuke horrelako zerbait jasan. Enpresa batek autonomoak nahiago ditu arriskua baxuagoa delako.

Beste herrialdeetan egoera hobea da?

Garraioaren sektorea okerrera doa eta eskarmenturik gabeko atzeritarrak lan egiten ari dira nonahi. Esplotatu egiten dituzte. Ez daukate ez egutegirik, eta askotan ezta eskubiderik ere.

lan egiten du. Bere ustez, egoera kezgarriagoa da enpresa handietan. “50 kamioitik gora dituztenetan, askotan eskarmenturik gabeko etorkinek lan egiten dute, eta horrek ez dio mesede egiten gure lanari, ez dituztelako, askotan, legeak eskatzen duen atsedendia hartzen”.

Anabasa

Elgoibarren, gainontzeko herri guztietan bezala, anabasa nagusitu da. Erosketak egiteko presa zuten erosle askok, eta hozkailuak betetzea zen askoren helburua. “Jendea aztoratu egin da, eta erosketak egitera etorri da barra-barra, greba luzerako izango delakoan”, azaldu digu fruitu-denda bateko saltzaileak.

Produktu freskoen menpe dauden dendek dituzte arazo gehien. Merkatu plazako arraindegira Ondarroa eta Bilboko merkatutik iristen da arraina furgioetan: “Guk ez dugu arazorik; sardina falta zaigu, baina arrain freskoa jasotzen dugu. Saltoki handietan bana-

keta kamioi handietan egiten dute, baina gu, momentuz, lasai gabiltza”, argitu zuten eguazten eguerdian. Hutsik zegoen arraindegia. Izoztutako produktuen saltokian, berriz, salmenta polita izaten ari dira astean zehar. “Jende gehiago etortzen ari da greba delata”, adierazi digu.

Itxierak

Grebaren eragina ere nabaria da enpresetan. Kamioi faltak lanaren erritmoa oztopatu egin du, produktuak zabaldu eta jasotzeko. Egoera horrek jarraitzekotan, larraldietarako neurriak hartu beharko dituzte, baina herriko enpresen jarduerak ez du momentuz etenik. Ezaguna da Debabarrenean enpresa handi batek hartu zuen neurria orain dela urte batzuk. Helikoptero bat kontratatu zuen produkzio-jarduera ez eteteko. Greba honen ondorioak oraindik zehazteke daude, baina herritar askok neurriak hartu dituzte badaezpada ere: okela, barazkiak... erosi, luzerakoa izan daitekeelakoan.

AHOLKUAK

Adituen arabera, neurritz jokatu behar da. Erosle askok neurritz kanpoko erosketak egin dituzte, behar ez dituzten produktu mordoa erosiz, inolako kontrolik eta irizpiderik gabe.

KONBOIAK

Hornikuntza faltagatik zenbait enpresak eten egin behar izan dute euren jarduera Euskal Herian: Fagor Hozkailuak, Gasteizko Mercedes lantegiak... Jaurlaritzak adierazi du «ohiz kanpoko konboiak» jarriko dituela egoera larrituz gero, sendagaiz, hidrokarburoz, elikagaiz eta altzairu-fabriketarako materialez kargatutakoak.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Zorionak familia!

Zorionak, Ibarluzea familiari, egun-dokoa lortu duzue eta. Edozein arlotan txapeldun izatea gauza handia da, eta zuek gutxien artean dagoen kirola izan arren, hiru txirloa edo "boletia", Gipuzkoako txapela etxeratu duzue oraingoan ere. Gure Anjeltxok 1. mailan, Julenek jubeniletan eta Jonek infantiletan. Aupa mutilak.

Baina zorionak bereziki Aitziberri, gaztetxo ezkondu, kaletik mendira bizitzera joan, bola sekula eskuan hartu gabekoa, senarrarekin lehenengo eta umeekin gero, bera ere bolari bihurtu da-eta aurte. Bere mutilen ondoan, emakumeetan bigarren izan da. Hau da hau familia!

Esaten den bezala, zer ikusi hura ikasi? Ala odolean daramate? Seguraski biak. Segi holaxe.

Maite Loiola

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeek zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitz argitaratuko.

OKERRAK ZUZENTZEN

Joan zen asteko alean gaizki jarri genuen CD Elgoibarrek Iban Zubiarrearen kasua dela-eta jasoko duen diru kopurua. Realak 5 milioi euro jasoko ditu, eta horren %10a dagokio CD Elgoibarri, hau da, 500.000 euro.

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Maialen
Olazabal

Kaixo Ane!!
Gaur ez dizut gal-
detuko zer moduz zabil-
tzan. Denok antzera ibiliko gara

eta azterketak direla eta. Baina eguraldiak behintzat ez du inbidia handirik ematen. Ekainaren erdira ia iritsita eta oraindik behatzak oinetakoetan ezkutatuta. Euritan blai egon gara, putzurik putzu saltoka; batzuk gustura eta ia gehienak ez hainbeste. Baina lasai, uda ate joka dator eta etorriko da Lorentzo gu epeltzera. Orduan sandaliak jantzi eta gonak hego haize epelak altxatuko dizkigu, bai horixe! Hondartzan olatu eta zurrumbilo artean igeri egingo dugu, gero lo-kuluxka bat egin eta karramarroen antzera *after sun* ematera! (badakizu eguzkitako krema eman behar dela ezta? Ez legoke ondo hau esan gabe gelditzea). Baina barre egingo dugu eta ez gara kexatuko.

“Euritan blai egon gara. Baina lasai, uda ate joka dator”

Baina ezer baino lehen San Pedro, San Juan, San Pelaio... Ane santu denak gure zain daude!! Eta aurten ere ez diegu huts egingo, topa egingo dugu beraien alde. Gure alde eta beraien alde; guztion alde. Hasi eta nazkatu arte ez gara geldituko. Gauza batzuk ahaztu eta aire berriak ezagutuko ditugu. Baina San Ferminak ahaztu gabe ezta? Uda berezia dator, goxatu eta gozatzekoa. Zuk ere izanango duzu ametsik uda honetarako, goxatu eta gozatzeko mila aukera eta desio. Konta egidazu Ane...



Ane
Odria

Zenbat amets, Maialen! Bufff!
Egia esan, betidanik izan du udak zerbait berezia, niri behintzat, halako bizipoz moduko bat ematen dit, eta badakit zuretzat ere uda dela denetan urtarorik gustukoena. Esan duzunez, hondartza eta inguruko herrietako jaiak izaten dira gazteon udaren osagai nagusiak, eta arrazoi osoa daukazu, baina nire udak ez luke zentzurik izango udalekurik gabe. Aurten, Mundaka eta Pasaiaiko itsasaldean eta Mendigorriko lautadan igaroko ditut hainbat egun udalekuei berea emango dieten haur zein gaztetxoek (eta nola ez, begiraleen) konpainian.

“Ea guztiok dugun aukera San Juan suetan amets txarrak erre berriei ilusioz ekiteko”

Igerilekura joango gara, eta mendira, eta hondartzara... Bizikletan ibiliko gara, eta itsasontzian, eta piraguan... Egun osoko ibilaldiak egingo ditugu, eta ekintza dibertigarriak, eta gaubelak... Abestu egingo dugu, eta dantza, eta jolastu, eta barre, eta, eta... eta negar ere egingo dugu azken egunean, zergatik ez! Datozen udalekuetan guzti horrek eta gehiagok egingo du eztanda eta irrikitan nago egun horiek noiz iritsiko. Hala ere, nire uda, hori baino gehiago izango den esperantza dut, eta ametsak egia bihurtuko badira, isilpean gordetzea hobe, ez duzu uste Maialen? Ea ba guztiok dugun aukera San Juan suetan amets txarrak erre eta berriei ilusioz ekiteko!



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gasolindegietan gasolioa eta saltokietan janaria falta izan da.

Aparteko neurririk hartu duzu garraiolarien greba dela-eta?



Iratxe Mendikute

20 urte, ikaslea


Nik ez, baina amak bai. Gasolioa hartu du eta jatekoa hozkailua zertxobait gehiago betetzeko. Ez nago bereziki kezkatuta kamiolarien grebaren inguruan.



Alberto Sanchez

39 urte, peoia

Ez, egunean behar duguna erosten dugu. Jendearen erreakzioa neurritz kanpokoa iruditzen zait. Herrian egiten dut lan eta ez dut depositoa bete. Espero dut greba lehenbailehen amaitzea.



Filo Agirre

74 urte, etxekoandrea

Bai, eresketa gehiago egin ditut: esnea, ura, okela... Luzatzen bada, hozkailua beteta edukitzea komeni da. Bakarrrik bizi naiz, eta ez dut erabat beteta. Zortzi egunerako dut jana badaezpada ere.



Alicia Gil

38 urte, margolaria

Ez bereziki, beti bezala. Autoko depositoa zertxobait gehiago bete dut. Jendearen jarrera sinestezina da. Janaria beti bezala erosiko dut. Lehenengo lau egunak izan ohi dira kritikoenak.

10^{eko}
TXIKIAN



JON
RODRIGUEZ

Ikaslea

1. Zer falta zaio Elgoibarri? Eta zer dauka soberan?

Parkeak eta zona berdeak txukuntzea falta zaio. San Roke ingurua zartarra zegoen eta txukundu egin dute. Hor egin dutena beste lekuetan ere egin beharko lukete. Herrian obra asko daude, gehiegi. Etxe asko eraikitzen ari dira.

2. Alkatea bazina, zer egingo zenuke di-da batean?

Aparkaleku gehiago jarri. Gida baimena orain ateratzen ari naiz. Lagunek badute, eta ez dago aukera handirik aparkatzeko.

3. Nolakoak gara elgoibartarrak?

Jende irekia, zentratutako jendea. Gazteak ere bai, nahiz eta zapatu gauetan jendea pasatu egiten den. Taberna batean egiten dut lan, eta jendearen jarrera ikusten dut.

4. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?

Ez, jendea mugitzen da.

5. Bainatuko gara sekula Deba ibaian?

Ez dut uste, baina gustatuko litzaidake. Gurasoek esan didate lehen jendea bainatzen zela.

6. Aukera nahikoa dago Elgoibarren kirola egiteko?

Bai. Areto futbolekoan jokatzen dut.

7. Ausartzen zara kultur eskaintzari tentsioa hartzen?

Ondo dago, ez daukat denbora libre askorik. Baina jendearengana ez da heltzen kultur emanaldien informazioa. Jende guztiaren etxera ere ez da BARREN heltzen, eta kultur gidei askok ez diote kasurik egiten.

8. Telebistan askotan irten da gure herria, ezta?

Ez dakit, ez dut telebista askorik ikusten.

9. Joango zinateke beste herriren batera bizitzera? Nora?

Ez, Elgoibarren jaio nintzen, eta hemen gustura bizi naiz. Nire herria da, ez dut besteren beharrik.

10. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?

Bai, jendeak ez du arazorik zapatu gauetan Elgoibarrera iristeko, eta trenak, taxiak eta autobusak daude. Maiztasuna, nahiko ondo dago.



Jendeak edozein lekutan aparkatzen du autoa Santa Klara auzoan: “Jausoro kalean bizi naiz eta gure garaje aurrean inork ez aparkatzeko ordaindu egiten dugu. Lurrean marra hori batzuk daude margotuta, eta argi ikusten da leku horretan aparkatzea debekatuta dagoela, baina jendeak ez du errespetatzen. Garajera sartu edo ateratzeko lan handia izaten dugu, eta gainera, gaizki aparkatutako autoreen bat jo ezkerro, erruduna neu izango naiz. Udaltzaingoari eskatu nahi nioke ingurune hori apur bat gehiago zaintzeko”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.com 943-74 41 12



Elgoibar Ikastolako DBH 3ko ikasleen gurasoek eskerrak eman nahi dizkiete Ikastolaren Egunean parte hartu zutenei: “Joan zen zapatuan, ekainak 7, oso giro onean ospatu genuen Ikastolaren Eguna, eta DBHko 3. mailako ikasleen gurasoek jaialdian parte hartu zuten guztiei eta babesleei eskerrak eman nahi dizkiegu. Denon laguntza eta kolaborazioarekin egun polita pasatu genuen”.

Denon laguntza eta kolaborazioarekin egun polita pasatu genuen”.

Eskerrik asko Ana Ansolari: “Ana Ansola piano irakasleari eskerrak eman nahi dizkiogu gurekin izaten duen pazientziagatik eta ematen dizkigun animoen-gatik. Oso gustura joaten gara zure klaseetara. Mila esker, zure ikasleen partez”.

Txalo bero bat Aterpe eskubaloi taldeari: “Zorionak neskak! Euskadiko Eskubaloi Txapelketan bigarren lekuan gelditu dira elgoibartarrak. Aurtengo denboraldia oso ona izan da. Lorea Gabilondo entrenatzaileari ere eskerrak eman nahi dizkiogu. Segi horrela!”.

NORA

**INPLANTEAK
PROTESIA
HORTZ ESTETIKA
ENDODONTZIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA
ORTODONTZIA
P.A.D.I.-a**

- Lehenengo errebisioa eta aurrekontua dohain.
- Sei hilabetetara FINANTZIAZIOA (Interesik gabe).

HORTZ KLINIKA

Odontologoa:
Nora Bastida Etxeberria
Koleg. zbkia: 736

**Azpilgoeta kalea 5, behea
20850 MENDARO
Tel: 943 03 35 75**

Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainak kotsakratu zuen San Bartolome parrokiako aldare berria domekan

Luis Ulazia arkitekto elgoibartarrak diseinatu du aldare berria

Juan Maria Uriarte Donostiako gotzaina etorri zen joan zen domekan, ekainak 8, San Bartolome parrokiako aldare berria kotsakratze-
ra. Juan Maria Uriartek 11:00etako meza eman zuen, Benantzio Otaegi Elgoibarko parrokoarekin batera. Elizkizunak ikusmin handia sortu zuen. Kristau asko hurbildu zen elizara eta baita agintari batzuk ere, Alfredo Etxeberria alkatea eta Markel Olano ahaldun nagusia esaterako.

Luis Ulaziaren diseinua

Aldare berria Luis Ulazia arkitekto elgoibartarrak diseinatu du. Donostiako Arkitektura-Eskolako irakaslea izateaz gain, Euskal Herriko arkitektozik ezagunenetakoa da Ulazia. Dukea motako harria erabili dute aldare berria egiteko, Izarraitzeko harrobitik ateratakoa da, hain zuzen ere. Aldarea Marmoles Bergara enpresakoek egin dute. Dena pieza bakarrean eginda dago, eta mila kilotik gorako pisua dauka.



Berritze lanak amaitu dira

Aldare berriaren kotsakrazioarekin amaitutzat jo dituzte elizako zaharbertze lanak. Sabaiko gurutze gangan dauden lau margolanak berriztu dituzte, argiztapen sistema berria jarri dute koadroak hobeto ikusi ahal izateko, eta erretaula neoklasikoaren kolore orijinalak berreskuratu dituzte.

Lan horien inguruan hitzaldia eskaini zuen joan zen astean Edorta Kortadi ar-

te adituak. Deustuko Unibertsitatean Historiaren Artea ikasgaia irakasten du, eta euskal kulturgintzan lan handia egini-ko gizona da. Elgoibarko parrokia eta Plaza Handiari buruzko gauza interesgarriak kontatu zituen hitzaldian, eta BARRREN astekaria berarekin berbetan izan zen.

Edorta Kortadiri eginiko elkarrizketa irakurtzeko: www.elgoibarren.net

Hiru kutxazaini eraso egin zieten joan zen asteburuan



Ezezagun batzuek hainbat su eragile bota zituzten astelehen goizaldean Banco Santander, Banco Guipuzcoano eta Caixa Catalunya banketxeetako kutxazain automatikoen aurka; hirurak ere Plaza Txikitik gertu dauden kutxazainak dira.

Kaltetutako banketxeetako arduradunek jakinarazitakoaren arabera, domeka eta astelehena bitarteko goizaldean gertatu zen eraso herriko hiru kutxazainetan.

Pertsonaia **Mikel Ibañez**



Mikel Ibañez preso elgoibartarra osasun egoera oso larrian dagoela jakinarazi dute Elgoibarko Amnistiaren Mugimenduko kideek. Eurek esandakoaren arabera, Mikel Ibañezek minbizia dauka eta hilzorian dago. Ondorioz, preso osasun eskubidea betetzeko eskatzen dute, eta mobilizazioak deitu dituzte preso elgoibartarraren askasuna eskatzeko. Joan zen zapatuan eskualdeko manifestazioa egin zen herrian, eta gaur iluntzeko 20:00etan giza katea eta kontzentrazioa egingo dira King-Kong-en.

Berbia **Selektibitatea**

Urteak daramatzate esaten selektibitate azterketa kendu egingo dutela, baina oraindik indarrean dago, eta bera da neurri handi batean ikasleei unibertsitateko atea ireki edo itxiko dizkiena. Aurten, Elgoibar BH Institutuko 64 ikaslek egin dute selektibitatea. Eguaztenetik gaur arte, hiru egunetan ikasturtean ikasitako guztia paper gainean jarri behar izan dute. Batzuk hobeto eta besteek okerrago, baina bukatu da selektibitatea. Ikasbidaitik itzultzean jakingo dituzte emaitzak, eta gehienek horren arabera erabakiko dute datorren ikasturterako norabidea.

Irudia **2008 primeran**

Bigarren mailako liga txapelketa asteburu honetan amaituko da, eta Realak garaipena behar du lehenengo mailara igotzeko, baina gainera, Sporting edo Malagaren huts egitearen zain egon beharko da. Joan zen jardunaldian sekulako aukera galdu zuen Alavesen kontrako norgehiagokan, eta azken partiduan erabakiko da dena. Elgoibarko jarraitzaileak itxaropentsu daude, eta Realaren aldeko banderak ikusi ditugu balkoietan.



Mundu bira 80 dantzatan

Triska dantza taldeak "Mundu bira 80 dantzatan" ikuskizuna eskainiko du ekainaren 20an Olaizaga kiroldegian. Hainbat herrialde eta kulturatako doinuen bidez, bidaia bat irudikatuko dute dantzariak. Ikuskizun horretan Elgoibar, Eibar, Mendaro eta Debako 140 dantzarik hartuko dute parte. Gaueko 22:00etan hasiko den dantzaldia Josu Mujikak zuzenduko du. Interesatuak Pitxintxun erosi ditzakete sarrerak, bi eurotan.

Txakurrak hezitzeko ikastaroa

Txakur hezitzaile batek eskainita, txakurrak hezitzeko ikastaroa hasi da aste honetan. Astearte eta ostegunetan izango dira saioak, goizez edo arratsaldez. Edozein arrazatako txakurrentzako ikastaroa da. Interesatuak 650 231 666 telefonora deitu dezakete.

1953koen kinto bazkaria

Ekainaren 28an izango da 1953koen kinto bazkaria. Eguerdiko 12:30ean mokadutxoa egingo dute Baltasar elkartean, eta 14:30ean izango da bazkaria Sigma jatetxean. Interesatuak Castriellejo tabako dendan edo Carlos Gonzalez tren estazioko nagusi ohiarekin harremanetan jarrita eman dezakete izena.

Merkatu plazako zozketa

Hilabete honetan Antonia Fernandez eta Josefa Astigarraga izan dira Merkatu Plazako zozketan sarrituak. 60 euroko erosketa txeketa bana jaso dute. Zorionak!



Gure berbak

Aditza (20): aditz gehiago

Beste aditz batzuk ekarriko doguz gaurkuan. Ez dot esan nahi erabiltzen diranak beti gaizki daudenik; batzuetan horrek ere erabili geinkez; baiña askotan aukera bakartzat erabiltzen dira, alde batera lagata aditz jator asko batzuk.

Hona adibide batzuk, beti bezela azpitan beste ordaiñ egoki(xago) batzuk daukenak:

- *Errietan hasi, eta jo egin debe gure laguna.*
- *Oso hasarratuta amaitzen dot Realaren partiduetan.*
- *Asko presionatzen dau alabia, eta beti amaitzen debe errietan.*
- *Ez naiz kapaz Elgoibarko mendi-itzulixa egitteko.*
- *Ikusten da aman alabia dala: bixak dira fin-fiñak.*
- *Asko disfrutatzen dot trikitixa entzutzen.*
- *Ez (eg)idazu illia hartu!*
- *Etorri jakozen pelota gehixenak fallau dit-tu.*

Hona, horren onduan, beste aukera batzuk, sarritan hobiak diranak:

- *Errietan hasi, eta egurtu egin debe gure laguna.*
- *Emegauta amaitzen dot Realaren partiduetan.*
- *Estu hartzen dau alabia, eta beti amaitzen debe errietan.*
- *Ez naiz gauza Elgoibarko mendi-itzulixa egitteko.*
- *Ezagun dau aman alabia dala: bixak dira fin-fiñak.*
- *Asko gozatzen dot trikitixa entzutzen.*
- *Ez (eg)idazu adarra jo!*
- *Etorri jakozen pelota gehixenetan egin dau kale.*

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1926

Aste honetako erretratu zaharra herritar batek ekarri digu. Madalako Hijas de la Caridad eskolan atera dago erretratua, 1926ko urriaren 20an. Erretratuan azaltzen diren neska horiek misiolariei laguntzeko antzerkia egin zuten egun hartan, eta argazkia atera zuten.

Gogora ditzagun neskatala horiek:

Lehenengo ilaran, ezkerretik eskumara: Genoveva Alberdi (†), Victoria Azpiazu, Maria Iriondo (†), Anita Garate.

Bigarren ilaran: Sabina Muguruza (†), Digna Lasa (†), Maria Arozena (†), Gregoria Elkoro-Irribere (†), ezezaguna eta Pepita Igartua.

Behean, eserita: Benita Agirre (†).



ESKERTZA



2008ko ekainaren 8an hil zen, 86 urte zituela,
Rosario Sodupe Esnaola andrearen sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Zer diosta bizitzak
hizkuntzaren gaian?
Hementxe nabilela
normal bizi nahian,
ez jaio arren oso
epoka lasaian
suerte bat izan dut
nik nire garaian:
gonbidatu nautela
Euskararen jaian.

Jon Sarasua



Bai, bazkide bat asko da. Eta herritar batek bazkide izan nahi duela esaten digun bakoitzean, aurrera segitzeko bultzada sentitzen dugu; baka-
rrik ez gauden sentsazioak inguratzen gaitu; gurea ilusio kolektiboa dela sumatzen dugu. Bazkide bat asko da, bai, eta bazkide asko garelako izan nahi dugu gehiago. Askok izan ziren orain dela 45 urte Elkartera arrimatu zirenak, eta nahiko genuke asko izatea etorkizunean ere. Askok gara, baina guztiontzako dago tokia Euskararen Jaian. Horregatik gonbidatu nahi zaitugu zu ere bazkide izatera. Zu asko zarelako.

. . . e t a a s k o g a r e l a k o



i z a n n a h i d u g u g e h i a g o



Eta zu zergatik zara bazkide?



**Asier
Zengotita**

“92. urtian arrimatu nintzan Elgoibarko Izarrara, bazkide kanpaina baten ondoren. Beste-rik ezian, kuota ordaintzen lagundu nahi nion, nahiz eta aurrerago inplikazio haundixagua izan doten. Arrazoia ez zan bakarra izan: Elgoibar euskaldunago baten alde lan egiten zaban elkarte autonomo eta herritarra ikusi naban; Elgoibarko Izarraren lanerako filosofia-rekin bat egiten naban; eta, gaiñera, lagun eta ezagun askoren elkargunia ere bazan. Edozein animatuko naban pauso hori ematera”.



**Maite
Rementeria**

“Etxian jaso naban euskeriarekiko maïttasunak kaliañ islada txikixa zakalako bete naban Elgoibarko Izarrako bazkide-fitxia 1991n. BARRENen sorreran profesional moduan jardun naban, eta, gaur egun, bazkide militante moduan jarraitzen dot lanian elkartian. Oraindik ere biharrezkoa da Elgoibarko Izarrak herri maïllan egiten daban lana, eta nik laguntzen jarraituko dot, ahal doten neurrian, Euskal Herri euskaldunago baten bila”.

“Euskara normalizatzeko ahaleginean, nire aportazioa egin nahi nuelako. Elgoibarko Izarrak Euskara Errefortzuak programaren ardurart hartu zuela jakin nueneñean, bertara jo eta elkarteko bazkide eta langile izateko aukera izan nuen. Euskarak bizi duen egoerari buelta eman nahi badiogu, ahalegin pertsonalak ondo daude, baina komunitate moduan lan egin behar dugu. Elgoibarko Izarran ezin dugu euskararen biziraupena ziurtatu, baina bere normalizazioan lagundu ahal dugula uste dut”.



**Eukene
Gil**

“Euskara normala izatetik oso urruti dagoelako. Euskaldunok, adibidez, ez dugu jakin gure seme-alabei hizkuntzaren balioa transmititzen, besteak beste, geuk ere ez diogulako euskarari garrantziarik eman. Edo, hainbeste kosta ondoren euskara ikastea lortzen dutenei ere, gaztelaniaz egiten diegu askotan euskaldunok. Gezurra dirudien egoera honetan, hizkuntzaren normalizazioaren bidean lan egingo duen mugimendu soziala behar beharrezkoa da. Horregatik naiz Elgoibarko Izarrako bazkide”.



**Juanjo
Bastarrika**

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDE-FITXA

Izen-abizenak:.....
Helbidea:..... Herria:.....
Telefonoa:..... Mugikorra:.....
E-posta:.....
NAN/ENA:..... Jaiotze-data:.....
Aurrezki kutxa:..... K/K zkia. (20 digitu):.....

Bazkide-kuota: 36 euro (18 euro ikasle, jubilatatu eta langabetuek).

Bazkide izan nahi baduzu:

Deitu: 943 74 16 26

Idatzi: elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com

Etorri: Ubitarte 4, behea




Euskal kultura tradizionala ezagutuz

ikastaroa

Ezagutzen ez dena ezin delako maitatu

Irakaslea: Juan Carlos Etxegoien, Xamar



20 orduko ikastaroa

Asteazkenetan

(irailaren 24tik azaroaren 26ra)

Prezioa: 30 euro

(15 euro ikasle eta langabetuentzat)

Plaza mugatuak

ZER LANDUKO DA?

Etxea

Herri egiturak

Inauteriak

Ahozko kultura

Mitologia eta sinismenak

Euskara

...

Babeslea:



Elgoibarko Udala

Izena emateko eta informazio gehiago:

943 74 16 26 (Imanol)

e-posta: imanol@elgoibarkoizarra.com

andoni iriondo

Motorista

“Motorrean aske sentitzen naiz”

Andoni Iriondok Madrilgo Jarama zirkuituan debuta egin du afizionatuentzako lehiaketan. Ekainaren 22an, berriz, sortu berri duten Euskadiko txapelketan parte hartuko du. Motorrik gabe ezin duela bizi adierazi digu. Orain Honda CBR 600 bat du. Bizitza guztia ibili da gurpil artean kamioilari mendaroarra.

Andoni Iturbe



Txikitatik amets egin du Andoni Iriondok gurpilekin, bereziki bi gurpildunekin. Beste asko futbolarekin zorutzen ziren bezala, mendaroarrak motorra zuen gogoko. Bere bizitzatik gurpil asko pasatu dira. Hamaika urterekin *mobillette*-a lortu zuen, hamaseirekin mendiko motorra... eta hamazortzi urte egin bezain pronto, autoko eta motorreko karneta lortu zituen. Hortaz, gutxi harritu ziren pasa den apirilaren 12an Jaramako afizionatuen txapelketan izena eman eta parte hartu zuenean. “Beti izan naiz motorzalea, eta beti egon naiz gurpilei begira”, adierazi du Andonik.

Honda CBR 600 motorra du Andoni Iriondok gaur egun. Santanderko tipo bati erosi zion. “Motorrean korrika egiteko ideia aspalditik izan dut, eta *parrilla de salida* batean egotea nahi nuen”. 30 urterekin lortu zuen bere ametsa: “Badakit adin honetan ezin dudala ezer ere lortu, txikitatik hasi behar delako entrenatzen eta lehiatzen”. Baina adin horretan, inoiz baino kontzientziatuago eta prestatuago dago, besteak beste badakielako motorra ez dela txantxa.

Zumaiako lagun bat hil zen orain dela urte eta erdi motorrean. “Beti berarekin joaten nintzen zirkuituetara, eta errespetua diot errepedeiri.

Abiadura handiegia hartzen duten motorrak ez dira edonola errepedean ibili behar”, argitzen du. Horregatik zirkuituetan lasaiago ibiltzen da, trafikoaren eta gidari beldurgarrien arriskutik kanpo. Lagunarena pasatu zuenean, errepedeko motorra saldu zuen. Beste lagun batek ere ezbeherra izan zuen bere aurrean. Hala ere, ezin zuen motorrik gabe bizi. Motorrean aske sentitzen da, bere bitzitza da.

Begiak bizitzen zaizkio motorrari buruz hitz egiten duenean. Lagunak egin eta lagunak kendu dizkio motorrak, eta horregatik esaten du kontuz ibili behar dela.

**Apirilaren 12an egin zuen debuta Jaraman,
zaletuentzako txapelketan**



Greba

Andoni Iriondo kamiolaria da, eta aste honen hasieran grebaren ondorioz Pauera joatekoa zen. Bere egun libre apurrak, nola ez, motorrari eskaini nahi izan dizkio. “Paueko zirkuitua publikoari irekita dago, eta ia beti

hartuta egoten da urtean zehar. Aurrez deitu behar da galdetzeko ea libre dagoen”. Nafarroan, Los Arcosen, egiten ari dira zirkuitu berria. “Bazen garaia. Afizio mordo dago Euskal Herrian eta inguruetan”, dio.



Andoni Iriondo mendararra Mikel Egia Mugerza lagunarekin. Bere laguntza ezinbestekoa da.

Euskadiko txapelketa

Madrilgo Race txapelketan parte hartu zuen apirilaren 12an. Lehenengo proba horretan 110 lagunek eman zuten izena eta 45. bukatu zuen. Bi multzotan bereiztu zituzten, eta laugarrena irten zen. “Atzean hainbeste jende ikustea flipatzeko modukoa izan zen. Irteera oso txarra egin nuen, baina hamaikagarrena heldu nintzen nire multzoan”. Beste hiru proba ditu Race txapelketak. Aurrekoa maitzaren 24an egin zen, eta hurrengoa ekainaren 21ean izango da. Baina Andoni Iriondo ekainaren 22an Paue-Arnoseko zirkuituan irtetekoa da, lehenengo aldiz Euskadiko txapelketa egingo baita.

Jaramako aurtengo txapelketa, berriz, irailaren 13an bukatuko da. Ez du uste bertan jarraituko duenik, gero eta oztopo handiagoak jartzen baitituzte Madrilgo zirkuituan. Hortaz, Euskadiko txapelketak aurrera jarraitzen badu, Iriondok aukera horri eutsiko dio, bestela Gaztela eta Madrilgora joango litzateke.

Laguntzak

Motor-gidari profesionalak pegatinaz josita lehiatzen dira. Pedrosari begiratzea besterik ez dago, bere txikitasunean iragarri.gizona dirudiela. Andoni Iriondok ez du iragarki bakarria ere. Euskadiko txapelketan aurrera egiten badu, eskertuko luke tailer edo denda baten laguntza. “Babesleak ongi-etorriak dira”, azaldu du. Motorzaletasunak inbertsio mordo eskatzen ditu, are gehiago lehiaketetan: kubiertak... Mekanikaz ere jakin badaiki, mantentze-lanetaz bereziki, bujia edo filtroen sekretuak. Garrantzitsuena: ilusioa du, bere burua probatzeko tentaldia.

Uda aurreko azken ikuskizuna gaur, barixakua, eskainiko du Kiribilkak

Euria eginez gero, emanaldia elizako arkupeetan izango da

Gaur jaia ikuskizuna eskainiko du Kiribilka programak gaur, barixakua. Dantzaldi honekin Kiribilkak agur esango dio aurtengo ikasurteari, uda aurreko azken saioa izango da-eta. 17:30ean hasi eta 18:30ean amaituko da, Plaza Handian. Hala ere, euria eginez gero, elizako arkupeetan izango dela nabarmendu dute antolatzaleek.

Animazioa eta musika

Kiribilka programak dantzaldia aurkeztu du azken saio honetarako: Xilipurdi taldeak *Gaur Jaia* ikuskizuna emango du. Hau izango da ikasurteko azken ikuskizuna.

Adin guztietako ikusleentzako animaziozko eta musika ikuskizuna da, umeentzako aproposa. Jai giroan gartzetzen da, zuzeneko musikaren bidez. Akziozko eta partehartze jolasak eskaintzen ditu, gainera. Denetik dago: puxikak, lehiaketak, parakidasak, dantzak eta pailazokeriak. Ume zein gurasoek espontaneitate osoz parte hartu ahal izango dute, era ez kompetitiboan.

Kiribilka Elgoibarko Izarra kultur elkarteak martxan duen egitasmoa da, familietan euskararen transmisioa bultzatzeko. Ume eta gurasoentzako hainbat saio eta ikuskizun prestatzen ditu programak.



Aire libreko zine denboraldia ekainaren 27an hasiko da

Aste honetan aurkeztu dute aire libreko zine denboraldia. Ekainaren 27an ekingo zaio. Beraz, udan hainbat film ikusi ahal izango dira kalean, Plaza Handian.

Aurtengo denboraldiak gure planetari lekua eskainiko dio. Izan ere, Lurraren nazioarteko urtea ospatzen da aurten. Lurrarekin zerikusia duten bi filma programatu ditu Udaleko Kultura Sailak (*Tierra* eta *Artikoko Erregea*). Filmetako bi euskaraz bikoiztutakoak izango direla iragarri du Kultura Sailak (*Onnovalen autobusa* eta *Artikoko Erregea*).

- **Ekainak 27:** *Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal.*
- **Ekainak 28:** *Fuera de Carta.*
- **Uztailak 4:** *Mortadelo y Filemon.*
- **Uztailak 5:** *Tierra.*
- **Uztailak 11:** *Junper.*
- **Uztailak 12:** *8 citas.*
- **Uztailak 18:** *Speed racer.*
- **Uztailak 19:** *Onnovalen autobusa* (euskaraz).
- **Uztailak 25:** *Mi monstruo y yo.*
- **Uztailak 26:** *Las hermanas Boleña.*
- **Uztailak 30:** *La llamada perdida.*
- **Uztailak 31:** *Iron man.*
- **Abuztuak 1:** *Sweeney todd.*
- **Abuztuak 2:** *Artikoko Erregea* (euskaraz).

Filmak 22:30ean hasiko dira, Plaza Handian. Euria egingo balu, emanaldia atzeratu egingo litzateke (barixakuko filma domekara eta zapatukoa astelehenera). Guztira 700 aulki jarriko dituzte.

murrplastik 

- KABLEENTZAT KATEAK
- IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
- KABLEENTZAT PLAKAK
- TUBOAK ETA ERRAKOREAK


URKIDI
 AHOLKULARITZA

Antonio Urkidi
Josefina Fernandez

Tel.: 943 74 18 91
 Faxa: 943 53 01 49
 Kalamua, 12



Sanmigeldarrek Esteban Egjari eskainiko diote omenaldia domekan

Auzolanean erakutsitako arduragatik eskerrak emango dizkiote

A iastia-San Migel auzoak omenaldia prestatu du Esteban Egjarentzat, domekarako, Sanmigeldarren egunerako (ekainak 15). Horrez gain, auzotarren arteko pilota partidak eta bazkaria ere izango dira. Auzolanean maixu izaten jakin duelako eskerrak emango dizkiote Esteban Egjari, eta omenaldi beroa eskainiko dio Aiaastia-San Migel auzoak.

Bizilagunek auzolanean egin izan dituzte frontoia, elkarte eta inguruko hamaika hobekuntza. Askotan abuztua aprobetxatu izan dute auzolanean jarduteko. Gehiengotan Esteban Egja izan da arduraduna. Trebetasun handia erakutsi izan du.

Bazkaria

Sanmigeldarren eguneko ekitaldiak eguerdian hasiko dira, mezarekin. Ondoren



Artxibokoa

salda eta txorizoa banatuko dituzte bertaratutako en artean. Ordu batean, auzotarren arteko pilota partiduari ekingo zaio. Sanmigeldarren eguneko bazkaria 14:30etan hasiko da. Auzoko sukaldariak prestatutako jakiak izango dira mahai gainean.

Txartelak erosteko epea atzo bertan amaitu zen, egunean. Bazkalosterako giro alaia ziurtagarria dago. Izan ere, Rakel Pujana Markinako trikitilariak dantzaldia eskainiko du. Aspertzerik ez da izango.

Urruzunoko jaiak bihar, zapatua

Urruzuno auzoko jaiak bihar ospatuko dituzte, zapatua. 18:00etan meza izango da eta ondoren luntxa, jokoak eta jolasak. Afaria 21:00etan izango da, elkartearen.

Euskarazko ondarea digitalizatuta

Euskarazko hizkuntza ondarea digitalizatzeko egindako lanak aurkeztuko ditu Elgoibarko Udalak. Aurkezpena martitzenean izango da, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 19:00etan. Alde batetik Badihardugu elkarteak egindako lanaren berri emango dute: elkarriketak egin, transkribatu eta interneten jarri ditu-eta. Bestetik, Dijitalitatea enpresaren lana azalduko dute: 1930-36 urteetako albisteak digitalizatu ditu.



EGA
IRAILEKO AZTERKETA PRESTATZEKO ESKOLAK

Uztailean eta irailean
Izena eman:
EKAINAREN 25a ARTE
Ikasle, guraso eta langabetuak matrikularia Udalaren laguntzari esker

aek EUSKALTEGIA
elgoibar@aek.org
Plaza txikia, 3
943 74 13 32

Aterpe eskubaloi taldea bigarren geratu da Euskadiko txapelketan



Infantil mailako Aterpe eskubaloi taldea Euskadiko txapelturnorde geratu da, Bizkaiko Kukullaga taldearen aurka 23 eta 24 galdu ondoren. Lehenengo zatia 9 tantutara berdinduta amaitu zuten, eta bigarren zatian Aterpek hartu zuen abantaila markagailuan. Azkenengo minutuetan, ordea, asko sufritu behar izan zuen, eta puntu bategatik galdu egin zuen. Elgoibartarrek Gipuzkoako txapeldun izatea lortu dute aurtan eta Euskadiko txapelturnorde geratuz, denboraldiari amaiera ezin hobea eman dio taldeak.

Antxintxika egiteko arropa

Txirindularitzako arropekin egin zuen moduan, antxintxika egiteko arropak atera ditu Udal Kirol Patronatuak Elgoibar izenarekin. Krosean, maratoian, mendiko lasterketetan eta antzeko kiroletan ibiltzeko arropa teknikoa da. Patronatuak ez du arropen salmentarekin etekinik jasoko, fabrika-prezioan salduko baititu. Arropen eskaerak egiteko epea ekainaren 24an amaituko da. Interesatuak Olaizaga kiroldegian ikusi eta probatu ditzakete arropak. Bestalde, Kirol Patronatuko arduradunek txirindularitzarako arropa ailegatu direla jakinarazi dute.

22 elgoibartar Pirinioetan bizikletan

Bizikletak hartu eta autobusean Irati ingurura hurbildu ziren herriko 22 mendizale pasa den asteburuan, Pirinioetako mendateetara gerturatzeko. Handik abiatuta, Larraungo gainetik pasatu ziren, besteak beste. Oso gogorra egin zitzaizen, baina sasoiaren zeudela frogatu zuten bai gazteek eta ez hain gazteek. Asteburu soila izateko probetxua atera zioten, ezustekoren bat tarteko. Oso-osorik iritsi ziren.



ELGOIBARKO ONDAREA DIGITALIZATZEKO LANEN AURKEZPENA

- ▶ "ELGOIBARKO AHOTSAK" proiektua (Badihardugu Euskara Elkarteak)
- ▶ Elgoibarko "KRONIKA ZAHARRAK" (1930-1936)

EGUNA: 2008-06-17, asteartea
ORDUA: 19:00
TOKIA: Kultur Etxeko hitzaldi gela

Antolatzailea: Elgoibarko Udaleko Euskara Sarea

Mintxetako aire libreko igerilekuak bihar, zapatua, irekiko dituzte

Bainu denboraldia irailaren 14ra arte egongo da zabalik

Mintxetako aire libreko igerilekuak bihar irekiko ditu ateak. Eguraldia aproposena ez bada ere, irailaren 14ra arte, igerilekuarekin gozatzeko hiru hilabete izango dira.

Hiru urtetik beherakoak eta Udal Kirol Patronatuaren abonatu direnak doan sartu ahal izango dira. Abonatu ez direnek, berriz, sei euro ordaindu beharko dituzte eguneko (18 urtetik beherakoek, lau). Hala ere, igerilekuetara arratsaldeko lauretatik aurrera joaten direnek 3,10 euro ordaindu beharko dute (2,10 euro, adin txikikoe). Herritarrek udako denboraldirako bonoa egin ahal izango dute Olaizaga kiroldegian: banakako bonoak 46,30 euro eta familia osoarenak, 82,45 euro. Mintxetako bi igerilekuek honako ordutegia izango dute: ekainean eta uztailean 11:00etatik 21:00etara; abuztuan



eta irailean 11:00etatik 20:00etara; zapatu eta domeketan 10:00etatik aurrera egongo da irekita.

Bestalde, igerilekuetako aldagelen ondoan eraikitzen ari diren tenis pista hilabete honen erdialderako prest egongo da.

Finalista Egunak zapore ederra laga zuen



San Pedron egin zuten bazkariarekin eman zitzaion amaiera pasa den domekan Idotorbe-San Pedro auzoan egin zen Finalista Egunari. Morkaikok antolatzen duen ekintza Plaza Handitik abiatu zen. Dominak emateko irizpidea mendiak apuntatzeko modua izan zen: 10, 15 20, 100 mendi eta 20.000, 30.000 eta 40.000 metro. Ondoren, Atxutxiamaikako kideekin bazkaldu zuten gaztetxoek.

C.D. Elgoibar

CD Elgoibarrek pasa den barixakuan egin zuen ezohiko batzarrean ez zen zehaztu zuzendaritza talde berria. Gurasoekin harremanetan jartzeko eta beste bilera baten deialdia zabaltzeko asmoa agertu zuten. Bazkide batzuek interesa erakutsi zuten, baina oraindik ez dute ofizialki aurkezpenik egin.

Bi erroberatan

Elgoibarko Herri Eskolako Guraso Elkarteak Sallobenteko txirrindulari itzulia antolatu du domeka honetarako, 10:15etatik aurrera, Plaza Handian. Jendeak distantzia laburretan bizikleta gehiago erabiltzea da lortu nahi duten helburua, bai eta txirrindularitza praktikatzeko ibilbide egokiak eskatzea ere.

Areto futbola

Areto futboleko jubenil, kadete eta infantil mailan jokatu nahi baduzu, ekainaren 16 eta 18an duzu aukera Olaizaga kiroldegian, 17:30etatik aurrera. Kirol ekipamendua eramatea eskatzen dute.

LANA

ESKAERA

- Esperientziadun sukaldaria, lanerako prest. ☎ 943 74 45 78
- Neska, lanerako prest. ☎ 659194189
- Emakumea, interna lan egiteko prest. ☎ 618 175 692
- Neska, arratsaldean lan egiteko prest. Garbiketak, nagusiak zaindu... ☎ 696 24 69 62
- Neska, gauz lan egiteko prest. Nagusiak zainduz edo sukalde laguntzaile moduan. ☎ 699 576 107
- Emakumea, umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 696 284 351/943530132
- Klase partikularak ematen ditut. LH, DBH, LOGSE eta zikloak. Ekainean eta uztailan. ☎ 653 717 972
- Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko, zerbitzari aritzeko do garbiketa lanetarako prest. ☎ 680 350 527
- Neska, gauetan tabernetan edo garbiketa enpresa batean lan egiteko prest. ☎ 686 234 612
- Neska, nagusiak edo haurrak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 626 876 186
- Neska, orduka astegunetan edo lan ordu osoa asteburuan egiteko prest. ☎ 646 821 678
- Neska, nagusiak edo haurrak zaintzeko, sukaldean laguntzaile aritzeko edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 608 047 720
- Neska, zerbitzari aritzeko, umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 675 709 452
- Neska, egun osoko lanean nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ 671 476 869
- Neska, lanerako prest. ☎ 638 494 501
- Neska, lanerako prest. ☎ 686 265 293
- Neska, orduka lan egiteko edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 943 53 02 90 / 688 682 398
- Mutila, banatzaile, igeltsero edo tailer batean lan egiteko prest. ☎ 639 984 262
- Neska, garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 943 74 22 01
- Neska, portakal edo sukaldeak garbitzeko prest. ☎ 649 212 944
- Neska, umeak zaintzeko prest. Esperientziarekin. ☎ 685 763 946

- Neska, garbiketa lanak egiteko prest. Goizez edo gauz. Interna ere bai. ☎ 697 813 719
- Neska, portakal lan egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 699 609 190
- Mutila, sukaldari laguntzaile edo zerbitzari lan egiteko prest. ☎ 650 611 415
- Neska, orduka lan egiteko prest. ☎ 658 164 787

ESKAINAZA

- Bitxiak, barruko zintziak eta kosmetika produktuak saltzeko pertsona behar da. Soldata ona. Ez da esperientziarik behar. ☎ 607824892
- Pertsona bat behar da gizon nagusia zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Abuztuaren 8tik 18ra. Gizarte Segurantzza. Soldata ona. ☎ 639 931 772 (arratsaldeetan)
- Eguazten eta domekarako zerbitzaria behar da jatetxe batean. ☎ 943 12 12 62
- Neska behar da orduka nagusia zaintzeko. ☎ 678 012 477

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Etxea salgai erdigunean. Hiru logela, bi egongela, sukaldea, bi komun. Berri-tua, dena kanpoaldera. Ganbara eta igogailuarekin. Eguzkitsua. ☎ 606 707 915
- Etxea salgai. Erdigunean. Hiru logela, egongela eta sukaldea, bainua eta ganbara. Kanpoaldera begira eta eguzkitsua. Altzariarekin eta igogailuarekin. ☎ 666 650 626
- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berriua, eguzkitsua. Ganbara eta balkoi handia. Altzariarekin salgai. ☎ 628 115 677
- Buhardilla salgai Altzolan. 50.000 euro. ☎ 625 708 042

GARAJEAK

- Garajea saldu edo alokatzen da Santa Ana 2an (Ametsa parean). ☎ 615 787 857
- 16 m²-ko garaje txikia alokairuan San Roke kaleko 10ean, kiroldegi atzean. ☎ 943 74 01 18
- Marradun garajea alokairuan, Juan Mugerza kalean (pista beltza). 38 euro hilabeteko. Autoa, Quad eta motorren-tzako. ☎ 616 111 603

MOTORRA

- Seat Ibiza salgai. Prezio onean. ☎ 678 803 535

Seat Leon TDI beltza salgai

- 105 zaldi, eguzkirako goialdea, Kit aerodinamikoa. 15.000 km. 17.000 euro. Transferitua. ☎ 647 626 693

- R-Trafic preparatua salgai. 9 urte. 260.000 kilometro. 1.900 diesel, 4.500 euro. Negoziatzeko moduan. ☎ 653 011 043

- Opel Astra coupe gasolinazkoa salgai. 95.000km. Egoera onean. 7.500 euro. (negoziatzeko). Beti garajean. ☎ 665 727 979

BESTELAKOAK

- Gortinak, altzariak, alfonbrak, ohera-ko izarak eta elektrogailuak behar dira. ☎ 676 444 171
- Zapatilari lotzen zaizkien gurpillak ahaztu nituen domekan, ekainak 8, Sigmako frontoian. Beltzak dira, argiekin. ☎ 600 300 682

Pianoa salgai

- Fuchs Et Möhr markako pianoa salgai. Erabili gabe ☎ 943 12 18 33 / 943 70 22 41

- The Police-n kontzerturako sarrera salgai. Prezio berean. 72 euro. Uztailaren 4ean (BBK Bilbao Live). ☎ 626 146 849

- Bruce Springsteen kontzertua uztailaren 15ean ikusteko bi sarrera salgai. ☎ 646 790 389

- Alokairuan hartzeko pisu bila gabiltza. ☎ 649 212 944

- Baratza konpartitu nahi nuke. Alde zaharretik gertu dago. Ura du, baita si-maurra eta lan egiteko erremintak ere. ☎ 655 723 678 / 943 74 39 19

Negozia salgai erdialdean

- Herri erdigunean dagoen negozioa salgai. Prezio onean. ☎ 638 555 945 / 943 74 19 78



BEKAK

PRAKTIKAK

Praktikak egiteko SEPI fundazioaren eta Alcoaren 40 beka. Epea: ekainak 22.

LEHIAKETA

KARTELAK

Hondarribiko Udalaren Kultura Zerbitzuak herriko jaiak iragartzeko antolatuta du kartel-lehiaketa. Epea: uztailak 8.

LANA

ADMINISTRARI LAGUNTZALEA

Euskal Filmetegirako administrari laguntzaile baten aukeraketa. Epea: ekainak 20.

UDALTZAINAK

Tolosako Udalean bi udaltzain lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketa. Epea: ekainak 20.

BEHATZAILAK

Ingurumen eta Landa eta Itsas Ingurune Ministerioaren Meteorologia Behatzaileen Kidegoan 25 lanpostu betetzeko oposizio-lehiaketarako deialdia. Epea: ekainak 24.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean, Bigarren solairuan.
e-posta: gib@elgoibar.org
☎ 943 74 14 61

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:
11:00etatik 13:00etara
Astelehenerdik ostiral arratsaldetan:
16:00etatik 19:00etara.

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero barren.iragarkilaburak.com atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro

3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro



• Zorionak, **Elena**, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Aimar**, 3. urtebetetzean. Aitona-amona eta osaba-izeben partez txokolatzeko muxu bat.



• Zorionak, **Nerea**, sorgintxo, bihar bi urte egingo dituzu-eta. Bereziki Lolita eta Aneren partez.




• Zorionak, **Oler**, bi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familia osoaren partez.



• Zorionak, **Maialen**, bost urte egin dituzulako. Familiaren eta bereziki Ikerren partez.



• Zorionak, **Danel**. Muxu handi-handi bat eta besarkada asko. Mari Carmenen eta bere sendiaren partez.



• Zorionak, **Maitane**, hamar urtetxo egin dituzulako. Aita eta amatxoren eta Lorenaren partez.



• Zorionak, **Eneko**, eguna pasa ezazu zure zortzigarren urtebetetzean. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Iker**, hiru laztan potolo Irene eta etxekoen partez.



• Zorionak, **Oihane**, dagoeneko sei urte. Neska handia zara. Familiakoen eta Mikelen partez.



• Zorionak, **Maria**, bederati urte egin zenituelako. Familiaren eta bereziki Andrearen partez.



• Zorionak, **txapeldun**, onena zara guretzat.



• Zorionak, **Haritz**, hamahiru urte egingo dituzulako. Zure familiaren eta bereziki Eñauten partez.



• Zorionak, **Iker**, ekainaren 5ean bost urte egin zenituelako. Gurasoen eta bereziki Ianirenen partez.




• Zorionak, **Jon**, txapeldun, gaur hamar urte egingo dituzulako. Familia osoaren partez muxu bat.



• Zorionak, **tío Joanes**, Telmo eta Alexen partez.



• Zorionak, **Paula**, zure zazpigarren urtebetetzean. Familiaren partez muxu bat



• Zorionak, **Ane**, hilaren 17an urtebete egingo dituzulako, etxekoen eta bereziki Oihanaren partez.




• Zorionak, **Miren**, zure hamaikagarren urtebetetzean. Zure familiaren partez.




• Zorionak, **potxoli**, zure lehen urtebetetzean. Lurdes, Manuel, Monica eta Robertoren partez



• Zorionak beroenak zuen Urrezko Ezteietan. Seme-alaba eta biloben partez.



• Zorionak, **bikote**. Muxu handi bat etxeko dantzari onenei.



• Zorionak, gure **Juan txikixa**, zure lehenengo urtebetetzean. Muxu handi bat familiaren partez.



• Zorionak, **bikote**, urteak egin dituzelako. Muxu handi bana etxeko mutilen partez.

OHARRA

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu BARREneko bulegora edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali. Tel.: 943 74 41 12

OKINDEGIA

15 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 13 Etxeberria (Santa Ana)
- 14 Etxeberria (Errosario) ("Goizez Fernandez")
- 15 Fernandez
- 16 Zabaleta
- 17 Yudego
- 18 Etxeberria (Errosario)
- 19 Ibañez
- 20 Garitaonaindia

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBARREN.neten



«Algo pasa en Las Vegas»

Herriko antzokian

- 13, barixakua: 22:15
- 14, zapatua: 19:00/22:15
- 15, domeka: 19:00
- 16, astelehena: 21:30



jaialdiak

13 barixakua

17:30 Kiribilka programa

Xilipurdi taldeak "gaur jai" antzezlan aurreztuko du Plaza Handian. Euria bada, elizako arkupean.

15 domeka

12:00 Sanmigeldarren eguna

Meza nagusia, auzotarren pilota partidak eta bazkaria. Aurten Esteban Egia omenduko dute.

19 eguena

19:00 Dantza jaialdia

Inazio Bereziartua Musika eta Dantza eskolako kurtso amaierako jaialdia. Herriko Antzokian



kirola

14 zapatua

9:30 Igeriketa eguna

Olaizaga kiroldegian.

15 domeka

10:00 Elgoibar bi erroberatan

Sallobentera bizikleta irteera. Plaza Handitik. Antolatzailea: Herri Eskolako Guraso Taldea



hitzaaldiak

19 eguena

19:00 Ostegun bidaiariak

Argentina, Sahara eta Egiptori buruzko informazioa eskainiko dute. Kultur Etxekoko aretoan.



aurkezpenak

17 martitzena

19:00 Elgoibarko ondarea

Elgoibarko ahozko eta idatzizko ondarearen aurkezpena. Kultur Etxean.

18 eguaztena

19:30 Danborradaren bideoa

Trinitate jaietak danborradaren bideoa aurreztuko da Kultur Etxean. Interesatuak bideoa ikustera joan daitezke.



Gure gomendioa

Arratsalde literarioak

Astelehena, ekainak 16, arratsaldeko 16:30ean

Bilboko Isabel Castillo literatura irakaslearekin batera, Arratsalde Literarioak egitasmoa jarri du martxan Haizea emakume taldeak. Bigarren saioa izango dute astelehenean. Liburu bat irakurri eta aztertu egingo dute. Oraingoan, *Acido sulfurico* liburua izango dute mintzagai.

klinika kortazar
Oftalmologia pediatrikoa

Gidabaimenak eta armabaimenak

Errebal, 14 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Te. 943 700 700 / 943 203 835



«Irina Palm»

Paradisu zinema

Gaztebtxean

15, domeka: 18:00



15 domeka

9:30 Ibilaldia Altzolan
Zubibai Elkarteak antolatuta,
Altzola inguruetan ibilaldia.
Irteera iturrian.

16 astelehena

16:30 Arratsalde literarioak
Haizeak antolatuta, Kultur
Etxeko hitzaldin gelan.

URRUZUNOKO JAIAK

14 zapatua

18:00 Meza
Ondoren, mokadutxoa
eta jolasak.
21:00 Afaria



Zerikasi

IKASTAROAK

Surf ikastaroa

Norentzat: 13-18 urte bitartekoentzat.
Hizkuntza: Euskaraz
Hasiara Data: 2008-6-15 / Bukaera Data: 2008-6-27
Non: Elgoibar
Izenemate bukaera: Ekainak 24

Euskal kultura tradizionalak

Norentzat: Interesa duen edonorentzat.
Hizkuntza: Euskaraz
Hasiara Data: 2008-9-24 / Bukaera Data: 2008-11-26
Non: Elgoibar
Izenemate bukaera: Plazak bete arte (mugatuak dira)

Bertso tailerra

Norentzat: Interesa duen edonorentzat
Hizkuntza: Euskaraz
Hasiara Data: 2008-7-04 / Bukaera Data: 2008-7-3
Non: Eibar
Izenemate bukaera: Ekainak 20

Emakumeen kontrako indarkeria

Norentzat: Interesa duen edonorentzat
Hizkuntza: Euskaraz
Hasiara Data: 2008-7-1 / Bukaera Data: 2008-7-3
Non: Eibar
Izenemate bukaera: Ekainak 20

Egurra lantzeko tailerra

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: Euskaraz edo gaztelera
Hasiara Data: 2008-7-14 / Bukaera Data: 2008-12-31
Non: Deba
Izenemate bukaera: Uztailak 14

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama



Maiatzeko irabazlea:

**IBANA
ORTUETA**

Ekaineko saria:

3 ORRAZKERA

+

3 TRATAMENDU

HILERAKO

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26



- 🚗 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- 🏁 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
- 🏁 IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

**Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik
eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!**

Tel: 943 74 10 11

Batoz informazio eske!

txatxaran



andrea arrieta

Lerun Xake taldeak maiatzaren 24an antolatutako Eskolarteko Xake txapelketan, Andrea Arrietak 1996-97-98 urtekoen kategorian irabazi zuen. Hamaka urte ditu, hamabi egiteko, eta momentuz, xakean jokatzeko jarraitzeko asmoa du. Baina bere adineko jokalaririk gutxi daude herrian.

“Nire adineko gazteak xakean jokatzeko animatu nahi ditut”

Gustura garaipenarekin?

Bai, ilusioa egiten dit nire lehen kopa delako.

Noiz hasi zinen xakean jokatzeko?

Lehenengo urtean hasi nintzen. Hasiberria naiz.

Nork animatuta hasi zinen?

Amak animatuta, etxean ere jokatzeko zutelako.

Baina orain xake eskolan ere bazabiltza, Mikel Leonekin. Zelan?

Oso ondo. Mikel Leonen eskoletara joaten naiz ostegunetan, eta asko ikasten dut. Ea nire adineko gehiago joaten diren.

Xakean jokatzeko jarraitzeko asmorik baduzu?

Bai, momentuz bai.

Dibertigarria da xakean jokatzeko?

Bai, nik ondo pasatzen dut. Jokoa da, baina aldi berean estrategia. Nire adineko gazteei animatu nahi diet. Zenbat eta gehiago aritu, orduan eta hobeto.

Ez dira animatzen?

Ez, ez dira animatzen. Nire ikasgelan bakarra naiz. Aurten bai, joan zen urtean, berriz, ez.

Ahizpak ere parte hartu zuen Eskolarteko txapelketan. Berakin jokatzeko duzu?

Ez, nik amarekin jokatzeko dut, eta ahizpak aitarekin.

Zure ahizpak ere postu ona lortu zuen...

Bai. Berak medaila lortu zuen.

Xakeaz gain beste hainbat ekintza egiten dituzu...

Bai, pianoa, eskola kirola, ingelesa...

Handitan zer izan nahi duzu?

Albaitaria. Animaliak asko gustatzen zaizkit, eta bereziki txakurrak. Txakurtxo bat eduki nahi nuke.

Zein txakur mota gustatzen zaizu?

Yorkshireak ez zaizkit gustatzen.

Zer diote gurasoek?

Lekua badaukagula. San Lorentzoko bizi gara, baina ez dute erabaki.

LUDOTEKAKO EKINTZAK



LUDOTEKAKO ORDUTEGIA

EKAINAREN 23tik 26ra

9:30etik 13:30era
Arratsaldeetan itxita

GAZTELEKUKO EKINTZAK



SURF IKASTAROA ZARAUTZEN

Izena emateko eta ordainketa egiteko azken eguna: EKAINAK 18

GAZTELEKUAN



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda

Berria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

("Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak).

San Bartolome, 25

Tel: 943 74 40 31

Egunero: 9:00-13:00

16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9

Tel: 943 74 85 93 (Idoia)

685 722 131

Astearte eta ostegunetan:

10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/

18-19:30/20-21:30

Mendaro

Astelehen eta asteazkenetan:

10-11:30/15-16:30

Astearte eta ostegunetan:

20:00-21:30

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10

Tel: 943 74 37 34

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria) San Frantzisko, 21

Tel: 943 74 03 59

Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)

Tel: 943 74 36 79

Zeharkalea, 8 behea (Ermua)

Tel: 943 17 71 34

e-posta: irale@irale.com

webgunea: www.irale.com

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62

Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.)

San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)

Tel.: 943 74 07 70

Astelehenetik Ostiralera 8:00 - 14:00

FISIOTERAPIA

Ainhoa Fisioterapia

Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.

Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745

(Goiz eta arratsalde)

Jausoro, 6 behea

PODOLOGOAK


Oinberri

Errosario kalea, 25

Tel: 943 74 17 95

Astelehenetik ostiralera:

9:00-13:30 / 15:00-19:30



ILSek

Maalako etxe berrietan

akademia berria zabaltzen du

2008/2009 IKASTURTERAKO MATRIKULA IREKIA

HAURRAK ETA GAZTEAK INGELESA, FRANTSESA ETA ALEMANA

- HAURRAK 4 urtetik aurrera
- GAZTEAK 12 urtetik aurrera
- Hizkuntzan erabat barneratzekoak, %100 ingelesez, frantsesez edo alemanez.
- Cambridge Azterketen prestakuntza: KET, PET eta FIRST CERTIFICATE.

ILS

Industry Language Services

Informazioa, matrikula eta ordutegiak

943 744 040

www.ils.es

IMHn gaude



INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES

